

AGENDA @ Irrati-Telebista

ekografiak @ FERMIN ETXEGOIEN

Tele-kromlecht

Nire egunkaritzat daukadana ez dator bat, zer egingo dion, nire iritziat daukadanarekin, niri ez baitzait gaizki iruditzen *Harry Potter* euskaraz eta gaztelaniaz, bi bertsoak batera, emititu izana.

Are gehiago, gaztelaniazko bertsoarekin euskarazkoa ere emititu izana oso argigarria egiten zait euskararen inguruan nagusi den diskurtsuaren hipokresia azalarazteko.

Harry Potter pelikula gaztelaniaz ikusi duen euskaldunak nahi izan duelako ikusi du halaxe, eta gaztelaniazko bertsoa hautatu du libreki eta inoren presiorik gabe. Be-

raz, *Harry Potter* gaztelaniaz ikusi duenak ikusi egin du gaztelaniazko bertsoa nahiago duelako euskarazkoa baino.

Momentu eta egoera horretan —filma hautatzeko garaian— gaztelania nahiago duelako euskaldun horrek euskaraz baino.

Nik horrela pentsatzen dut, eta beste batzuek beste modu batez pentsatzen dute. Batzuek pentsatzen dugu euskararen egokitasun arazo batek daramatzala euskaldun zenbait *Harry Potter* gaztelaniaz hautatzera. Eta zera pentsatzen dugu ere: mementu eta egoera horretan —filma hautatzeko garaian—, herri indo-europearren maltzurkeria naturala ez dela errudun nagusia.

Euskarazko bertsoak izan duen audientzia negarga-

rria altuagoa izango zen, seguruenik, gaztelaniazkoarekin batera emititu izan ez balitz, ez dago dudarik. Horregatik, film onak ETB1en lehenago emititzea ideia ona iruditzen zait neuri ere, eta betidanik defendatu izan da halako jokabidea zutabe honetan.

Baina bizitza erreala bestea da, lehenago egunean gertatutakoa: euskarazko eskaintzak gaztelaniazkoekin lehiatu beharra dauka. Eta hor ikusten da, benetan ikusi, normalizazioa deitzen dugun hori noraino ailegatu den zenbait arlotan: adibidez, filmetako itzulpengintzan.

Harry Potter ez zen euskaraz ikusi euskal jende askok ez duelako euskarazko bertsoa gaztelaniazkoa bezain ondo ulertzen. Eta hau dugu arrazoi nagusia orain, herri indo-europearren maltzurkeriaz landa.

KATALUNIA

Ahots libre baten ixiltzea

Espainiako Radio5 Bartzelonako Radio Bronka irratiaren seinalearen gainean emititzen ari da

URTZI URKIZU - DONOSTIA

Abenduaren 21etik Espainiako Radio Nacionaleko Radio5 emisorak Bartzelonako Radio Bronka irrati libre eta libertarioaren gainean ari da emititzen, FMko 99 frekuentzian.

Mario Ortiz Radio Bronkako kideak BERRIARI azaldu dio nola gertatu den zapaltze hori: «Kataluniako Generalitateko hirukoak gobernu guztiak iristen direnean egiten duten gauza bera egin du; hau da, frekuentziak beraien interesen arabera berrantolatu. Dialean beraientzat espazio gehiago hartu eta besteentzat gutxiago utzi nahi dute».

Egoera horren aurrean Radio Bronkako kideek berehalako erantzuna ematen saiatu dira. www.sindominio.net/rbronka Interneteko helbidean irratiaren seinalea entzun daiteke eta handik zabaldu dituzte emisio zapalkuntzari buruzko argibideak. «Hainbat agiri bidali ditugu gertatutako salatuz. Bestetik, elkarriketa bat eskatu dugu Generalitateko ordezkari batekin, eta datorren asteazkenean bilera bat izango dugu. CIUko gobernuaren zegoenean eta halako gau-



RADIO BRONKA irrati egoitzaren irudi bat, Bartzelonan. RADIO BRONKA

zak gertatzen zirenean, saiatzen ziren hitz egiten eta guretzat tarte bat aurkitzen». Bestetik, hilaren 8an kontzentrazio bat egingo dute Bartzelonako Katalunia plazan, Radio Nacionaleko egoitzaren aurrean emisioaren zapalkuntza salatzeke.

Radio Bronkak 18 urteko bide-darama eta hainbat taldek jasan duen isiltzea salatu dute.

«Hedabide ezberdina izaten saiatu izan gara beti, pertsonen beste modu batean komunikatzen saiatuz. Kidekoen artean komunikazioa bultzatzen saiatzen gara. Zailtasun guztiak proiektuak aurrera egingo du, nahiz eta administrazioak oztopo guztiak jarri. Kartzelara joateko prest gaude», adierazi du Radio Bronkako kideak.

@ esanak

MARIO ORTIZ

(Radio Bronkako kidea)

«Kataluniako hirukoak dialean espazio gehiago hartu nahi du eta besteei gutxiago utzi»

«Gure proiektuak aurrera egingo du, nahiz eta administrazioak oztopoak jarri»

Radio Bronkak ohiko hedabideen monopolioarekin amaitu eta hedabide horien menpekotasunetik libratu nahi du. «Gure antolatze modua libertarioa, asanblearioa eta komisario politikorik gabekoa da», dio Ortizek.

Euskal Herriko hainbat irrati liberekin harremanak ditu Radio Bronkak.

@ laburrean

ERRESUMA BATUA
BBC kateak historiako datu txarrenak izan ditu, 2004. urtean, entzulekopuruari dagokionez

Erresuma Batuko BBC kate entzultetsua krisian dago. Duela aste batzuk zazpi mila langile kaleratuko zituztela iragarri zuten. Entzuleen inguruko datuetan, berriz, behera egin du 2004. urtean, eta historiako urte txarrena izan du. BBC1 katearen entzule-kopurua %3,5 jaitsi da eta %25eko «muga psikologikotik» behera kokatu da. BBC2 katea, aldiz, %8,9 jaitsi da (*Los Simpson*-en eskubideak galtzearen ondorioz bereziki). Kanal digitalen entzule-kopuruaren batuketak BB-Cren ehunekoak gainditzen du aurrenekoz.

EITB
910.250 pertsonak bisitatu zuten EITBren webgunea 2004. urtean

EITBren webgunearen erabilzaileek nota ona jarri diote guneari, mila pertsonen erantzundako inkestan, 5etik 3,81ko batez besteko puntuazioa jaso baitu. 2003. urtean 708.334 pertsona sartu ziren www.eitb.com helbidean eta joan zen urtean 910.250era iritsi zen kopurua. Guztira 18.486.686 orrialde bisitatu dituzte internetuek 2004an.

TELE5
Espainiako kateak 120.000 euro ordaindu beharko dizkio Francisco Alvarez Cascosi

Tele5 kateak, Europroducciones TV ekiztetxeak eta kateko bi kazetarik Alvarez Cascos Espainiako ministro ohia 120.000 euro ordaindu beharko dizkiote, intimitate-eskubidea urratzeagatik. Alvarez Cascosek Tele5 salatu zuen, *Día a día* saioan bera eta bere bikoteak Lanza-rotoren izan zireneko irudiak emategatik.

Espainiako Gobernuak lurreko telebista digitala bizkorrago bultzatzeko plan berri bat onartu du

ERREDAKZIOA - DONOSTIA

PPK ikus-entzunezkoen alorrean ezarriak zituen zenbait neurri aldatzea erabaki du PSOren Espainiako Gobernuak. Hala, lurreko telebista digitala bultzatzeko, «kable telebista liberalizatu eta aniztasuna zabaltzeko»

plana onartu du Espainiako Gobernuak.

Plan horren arabera, itzalaldi analogikoa eta telebista digitaleko trantsizioa 2012 urtetik 2010era aurreratu dute. Bestetik, lehenbailehen lurreko telebista digitaleko frekuentziak banatuko dituzte eta emisioak aurreratu

tengo udazkenean hasiko dituzte.

Autonomia erkidegoek malgutasuna izango dute nahi dituzten programak zehazteko, eta gutxienez programa publiko bat izango dute lurralde bakoitzean. Era berean, plan berria onartzen denetik zortzi hilabete

izango dituzte autonomia erkidegoek kontzesioen lehiaketa eta esleipena egiteko.

Kable bidezko telebista eta irratiaren kasuan, mugak kenduko dituzte eta operadore berriak sortzeko aukera emango dute. Alor horretako liberalizazioa lau urtetan aurreratu da.

Itzalaldi analogikoa 2010erako